

# IZIARKO BIRJIÑARI.

## EUSKARICHOA.

Agur Iziarko  
 Birjiña ederra  
 Agur, Ama. maite,  
 Itsacoko izarra.

## KANTALDIA.

Penaz dagoena  
 Zugana dijoa;  
 Biral dezayozun  
 Atsegiñ gozoa.

Zugana dijoaz  
 Ichuak, eriyak,  
 Atsekabedunak,  
 Miñ diran guziyak.

Dakite zerala  
 Guziz maitatsua  
 Zerala gizonen  
 Ama gozatsua.

Zerala tristuraz  
 Daudenen gozoa;  
 Zerala pozaren  
 Iturri naroa.<sup>1</sup>

Argiya zerala  
 Illun daudentzat,  
 Chit errukitsua  
 Pekatariyentzat.

¡Ama! zugañ gu re  
 Gatoz gaur bildurik,  
 Eskeintzera gure  
 Biyotzak, pozturik.

Zuregana gatoz  
 Danok, eskatzera  
 Begira zazula  
 ¡Bai! Ama, lurrera.

Etsayak arrorik  
 ¡Ay! datozenean,  
 Gorde gaizatzu ¡bail!  
 Zure mantupean,

Erortzen dan eran  
 Intza zelayetan,  
 Graziya eror dedin  
 Gure biyotzetan,

Ongi bizirikan  
 Egunen batean,  
 Ikusi zaitzagun  
 Zeru ederrean.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

(1) Naroa.—Abundante, copioso.